

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	LURPEKO ETA AIRE ZABALEKO INDUSKETETAKO ARRISKUEN PREBENTZIOA (zeharkakoa)	Iraupena	50
Kodea	MF0858_1		
Lanbide-arloa	Erauzketa-industriak		
Lanbide-eremua	Meatzaritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Indusketako eta fabriketako tresneria eta instalazioen muntaketa eta mantentze-lan mekanikoetako eragiketa osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Indusketako eta instalazioetako ekipamendu finkoen eta instalazioen muntaketa eta mantentze-lanetako materialak eta oinarritzko eragiketak prestatzea	Iraupena	40
	Indusketako eta fabriketako instalazioen muntaketa eta mantentze-lanetako eragiketa osagarriak.		70
	Ekipamenduen eta makinaren muntaketako material-prestaketa eta eragiketa osagarriak lurpeko eta aire zabaleko indusketetan.		70
	Lurpeko eta aire zabaleko indusketetan ekipamenduen eta makinaren muntaketa eta mantentze-lanetako eragiketa osagarriak.		50
	Oinarritzko ebaketa-, konformazio- eta soldatze-eragiketak muntaketa eta mantentze-lan mekanikoko prozesuetan (zeharkakoa)		90
	Indusketako eta instalazioetako ekipamendu eta instalazioen muntaketa eta mantentze-lan mekanikoko eragiketa osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0858_1 LURPEKO ETA AIRE ZABALEKO INDUSKETETAKO ARRISKUAK PREBENTZIOA.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Instalazio eta ekipamenduetako manipulazio-jardueretarako prebentzio- eta segurtasun-neurriak —sektoreko segurtasun-plan orokorrean jasotzen direnak— aztertzea.

E1.1 Instalazio eta ekipamenduetako manipulazioak eragin ditzakeen arriskuekin lotutako prebentzio- eta segurtasun-arauak zehaztea.

E1.2 Arrisku-faktoreak eta bestelako arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea.

E1.3 Produktu kutsatzaileekin egiten diren jardueretatik eratorritako ingurumen-babeseko eskakizunak identifikatzea.

E1.4 Lan-eremuen eskakizunak eta haiek prestatzeko prozedurak deskribatzea, eta laneko arrisku espezifikoak eta haiek zuzentzeko neurriak zehaztea.

E1.5 Izan litezkeen istripuetarako lehen sorospenen eskakizunak aztertzea.

E1.6 Langileek eta enpresak prebentzio- eta segurtasun-arloan dituzten eskubide eta betebeharrak definitzea.

A2: Segurtasun-plana aplikatzea, eta, horretarako, enpresako prebentzio- eta segurtasun-neurriak eta ingurumena babestekoak aztertzea.

E1.1 Prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatzea detektatzen diren arriskuei, babes individual eta kolektiboko ekipamenduak hautatzea, egoera onean izatea eta behar bezala erabiltzea barne.

E1.2 Jarduera-protokoloak aplikatzea izan litezkeen larrialdietan, kasurako:

- Zeregin espezifikoek arduratu behar duten pertsonak identifikatzea.
- Detektatutako disfunczio eta gertaera arriskutsuen berri ematea.
- Larrialdietan eraikinak ebakutzea, ezarritako prozedurei jarraikiz.

E1.3 Gerta litezkeen istripuetan, oinarritzko osasun-neurriak eta lehen laguntzako teknikak aplikatzea eta zaurituak eramatea.

A3: Lurpeko edo aire zabaleko indusketetako lan-jarduerak eta ingurunearen baldintzak deskribatzea, arriskuak eta hartu beharreko segurtasun-neurriak identifikatzeko.

E1.1 Aire zabaleko eta lurpeko indusketetako lanen ezaugarri nagusiak definitzea, horretarako, indusketaren helburu nagusiekin (meatzaritza, eraikuntza eta obra zibila) eta duen izaerarekin (iraunkorra edo aldi baterakoa) lotuz.

E1.2 Lurpeko edo aire zabaleko inguruneko lan-baldintza partikularrak deskribatzea (konfinamendua, argiztapena, atmosfera arriskutsuak, zaratak, hautsa).

EI3.3 Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako lan-prozesuak deskribatzea; horretarako, jarduera nagusiak (abian jartzea, karga eta garraioa, euspena) jarduera horietako bakoitzean erabiltako teknika eta prozedura, ekipamendu eta makinekin lotuko dira.

EI3.4 Aire zabaleko eta lurpeko indusketetan dauden azpiegiturak (sarbideak, iraganbideak, putzuak, pistak) instalazio orokorrak eta zerbitzuak (elektrizitatea, garraioa, aireztapena, aire konprimatua, ura eta hustubidea) identifikatzea eta bakoitzaren helburua eta ezaugarri orokorrak adieraztea.

EI3.5 Lan-ingurunea behar bezala mantentzeko eta garbitzeko irizpideak identifikatzea, lanen segurtasuna, eraginkortasuna eta efikazia bermatzeko.

A4: Aire zabaleko edo lurpeko indusketetan dauden arriskuak eta hartu beharreko segurtasun-arau orokorrak deskribatzea; horretarako, orokorrean erabili beharreko babes kolektiboak eta norbera babesteko ekipamenduak identifikatuko dira.

EI4.1 Aire zabaleko indusketetako arrisku orokorrak identifikatzea, hartu beharreko babes-neurriekin erlazionatuta.

EI4.2 Lurpeko indusketetako arrisku orokorrak identifikatzea, hartu beharreko babes-neurriekin erlazionatuta.

EI4.3 Indusketetako lurra egonkortzeko eta eusteko modu desberdinak ezagutzea, baita haien helburua eta lan-ingurunearen osaera ere; horretarako, lur horiek seguruak izateko behar dituzten ezaugarriak identifikatuko dira, era berean, kontuan izan beharko da harkaitz-jausiak izan daitezkeela.

EI4.4 Lurpeko eta aire zabaleko indusketetan norbera babesteko derrigorrezko ekipamenduak identifikatzea eta dagozkion arriskuekin lotzea.

EI4.5 Aire zabaleko eta lurpeko eragiketa osagarrietan erabili beharreko babes indibidual eta kolektiboko ekipamenduen erabilera eta mantentze-lanak azaltzea, fabrikatzailearen erabilera-eskuliburuaren arabera.

EI4.6 Lurpeko eta aire zabaleko indusketetan babes kolektiboko derrigorrezko ekipamenduak zerrendatzea eta dagozkion arriskuekin lotzea.

EI4.7 Normalizatutako segurtasun-seinaleak ezagutzea eta zorrotz errespetatzea.

EI4.8 Indusketa-egoera espezifiko batean:

- Egon litezkeen arriskuak aipatzea.
- Hartu beharreko prebentzio-neurriak aipatzea.
- Norbera babesteko beharrezkoak diren ekipamenduak aipatzea.
- Babes kolektiboko beharrezko ekipamenduak aipatzea.
- Norbera babesteko ekipamendu egokiak aukeratzea.
- Norbera babesteko ekipamenduak behar bezala erabiltzea eta mantentzea.
- Prebentzio kolektiboko seinaleztapenak, babesak eta gainerako prebentzio-neurriak hautatzea eta jartzea.

A5: Istripuen, larrialdien eta ebakuazioen kasuetarako lan-arriskuak prebenitzeko planetan ezarritako prozedurak aplikatzea.

EI5.1 Istripuaren larritasuna ezagutzea laneko arriskuak prebenitzeko planean ezarritakoaren arabera.

EI5.2 Istripu-kasuetan jarraitu beharreko prozedura deskribatzea: abisuak, istriputua babesteko neurriak, seinaleztapenak.

EI5.3 Lehen laguntzako teknikak eta istriputua eramateko teknikak aplikatzea.

EI5.4 Larrialdietarako plan bat deskribatzea, osatzen duten zatiak aztertuta.

EI5.5 Larrialdi-planetik eratorritako eskakizunak deskribatzea, eskatutako baliabide materialei dagokienez.

EI5.6 Istripuaren egoera espezifiko batean:

- Eraginpeko gunea babestea edo istriputua gune seguru batera eramatea.
- Laguntza eskatzea.
- Lehen laguntza emateko aurreikusitako ekintzak egitea, istripu-motaren arabera (ibilgetzea, bendajeak).
- Istriputua garraiatzen laguntzea.

EI5.7 Larrialdiko egoera espezifiko batean:

- Larrialdi-mota identifikatzea.
- Abisua ematea ezarritako protokoloaren arabera.
- Larrialdi-motaren arabera aurreikusitako ekintzak egitea: (maskarak edo su-itxalgailuak erabiltzea eta ureztatzea).

EI5.8 Ebakuazio-egoera espezifiko batean:

- Ebakuazioa eskatzen duen larrialdi-mota identifikatzea.
- Abisua ematea ezarritako protokoloaren arabera.
- Ebakuazio-baliabideak eta -zirkuituak identifikatzea.
- Ebakuazio-planean aurreikusitako ekintzak egitea.

A6: Aire zabaleko eta lurpeko indusketetan ez ezik ekipamenduen erabileraren mantentze-lanetan ere sortutako hondakinak ezagutzea, eta haiei dagozkien biltegiatze-ontziak eta lekuak identifikatzea.

EI6.1 Indusketetan sortutako hondakin-motak sailkatzea, toxikoak eta arriskutsuak bereiziz bereziki, eta ingurumenean eragiten dituzten ondorio kaltegarriak adierazita.

EI6.2 Pertsonengan edo ingurumenean kalte egin dezaketen produktuen ontzien segurtasunaren seinaleztapena ezagutzea (material sukoiak, toxikoak, lehergaiak eta bestelakoak).

EI6.3 Norbera babesteko ekipamenduak —sortutako hondakinietarako egokiak direnak— hautatzea.

EI6.4 Indusketetan sortutako hondakinak biltegiartzeko eta birziklatzeko edukiontzia, tokiak eta baldintzak identifikatzea.

Edukiak

1. Laneko segurtasunaren eta osasunaren oinarritzko kontzeptuak.

- Lana eta osasuna.
- Lan-arriskuak.
- Arrisku-faktoreak.
- Lanetik eratorritako ondorioak eta kalteak:
 - Lan-istripua.
 - Gaixotasun profesionala.
 - Lanetik eratorritako beste kalte batzuk.
 - Ondorio ekonomikoak eta funtzionamendukoak.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko oinarritzko arau-esparrua:
 - Lan-arriskuen prebentziorako legea.
 - Prebentzio-zerbitzuen araudia.
 - Irismena eta oinarri juridikoak.
 - Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko direktibak.
- Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten erakunde publikoak:
 - Estatuko erakundeak.
 - Autonomia-erkidego mailako erakundeak.

2. Arrisku orokorrak eta haien prebentzioa.

- Tresna eta ekipoak erabiltzeak dituen arriskuak.
- Sistema eta instalazioak maneiatzeak dituen arriskuak.
- Kargen garraioak eta biltegiatzeak dituzten arriskuak.
- Lan-inguruneari lotutako arriskuak:
 - Agente fisiko, kimiko edo biologikoekiko esposizioa.
 - Sua.
- Lan-kargatik eratorritako arriskuak:
 - Neke fisikoa.
 - Neke mentala.
 - Lanean pozik ez egotea.
- Langileen segurtasunaren eta osasunaren babesa.
 - Babes kolektiboa.
 - Banakako babesa.

3. Larrialdietan eta ebakuazioetan egin beharrekoak.

- Istripu-motak.
- Zaurituaren lehen mailako ebaluazioa.
- Lehen laguntza.
- Sorospena.
- Larrialdi-egoerak.
- Larrialdi- eta ebakuazio-planak.
- Larrialdietako jarduerarako informazio osagarria.

4. Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako laneko arriskuen prebentzioa.

- Aplikazioa aire zabaleko eta lurpeko indusketetan:
 - Meatzaritza.
 - Eraikuntza.
 - Obra zibila.
- Ingurunearen baldintzak:
 - Aire zabaleko indusketak.
 - Lurpeko indusketak.
- Lurpeko eta aire zabaleko indusketetako produkzio-prozesua:
 - Faseak.
 - Jarduera nagusiak.
 - Ekipamendu eta makina nagusiak.
- Instalazioak eta zerbitzuak:
 - Elektrizitatea.
 - Aireztapena.
 - Aire konprimatua.
 - Ura eta hustubidea.

- Aire zabaleko indusketen inguruneko arrisku orokor eta prebentzio-neurri nagusiak:
 - Segurtasun-neurriak.
 - Babes kolektiboko baliabideak.
 - Norbera babesteko ekipamenduak.
 - Erabilerari eta mantentze-lanei buruzko eskuliburua.
- Lurpeko indusketen inguruneko arrisku orokor eta prebentzio-neurri nagusiak, gas eta atmosfera leherkorrei buruzkoak:
 - Segurtasun-neurriak.
 - Babes kolektiboko baliabideak.
 - Norbera babesteko ekipamenduak.
 - Erabilerari eta mantentze-lanei buruzko eskuliburua.
- Induskatutako lurren egonkortasuna.
- Lan-inguruneko euspen- eta osaera-motak.
- Luiziak eta luizien kausak.
- Saneatzea eskuzko erremintak erabiliz.
- Larrialdi- eta ebakuazio-egoerak:
 - Lurpeko eta aire zabaleko meatzaritzako larrialdietarako plan espezifikoak.
 - Erabili beharreko ekipamenduak eta osagarriak.
 - Jarraitu beharreko jardunak.
- Ingurumena babesteko neurriak:
 - Hondakinen identifikazioa.
 - Etiketak eta seinaleztapena.
 - Hondakinen eta botatzeko materialen bilketa.
 - Biltegiatzea.
- Babes kolektiboko ekipamenduen instalazioa.
- Behar diren norbera babesteko ekipamenduak eta lan bakoitzarekin duten lotura funtzionala.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Indusketako eta fabriketako tresneria eta instalazioen muntaketa eta mantentze-lan mekanikoetako eragiketa osagarriak